

Adierazpena

Batasunaren agiria

- Atzo aurkeztutako idatziak ezkerren batasun prozesua abiatzeko ardatzak proposatzen ditu. Hona hemen nagusienak

Prozesu historiko honen egungo etapan, gure herriaren historia politikoaren egoera garrantzitsuan gaude. Gure herria administrazio egitura desberdinetan zatitzen duen instituzio markoa agortuta dago; beraz, demokrazi eszena-toki berri batera jo behar dugu. Zapaltzen gaituzten esta-tuekiko loturak hautsi eta Euskal herriaren nazio eraikun-tza eta gizarte eraldaketaranzko urratsak egin behar dira. (...) Zeregin hori bete ahal izateko, Euskal Herri osoko, Atu-rritik Ebrorainoko erakundea sortu behar dugu, Euskal Herrian orain arte garatutako antolakuntza esperientzia kontuan izanda. Gure asmoa esperientzia guztion onena bildu eta Euskal Herri aske, aurrerakoi eta solidarioa nahi eta behar duten pertsona eta sektoreen ilusioarekin batera bide berriari ekitea da.

Etorkizuneko Ezker Abertzalerantz

Une erabakigarri hauetan, Euskal Herriak ezker anitz, ko-ordinatu, eta indartsua behar du, herrialde guztiak biltzen dituen Euskal Herria eraiki ahal izateko. Era berean, ezker horrek eredu sozial alternatiboa proposatzeko gai izan be-har du. Borrokatzen garenon batasunari horrenbeste kalte egin dioten banaketak eta *ismo* dogmatikoak bazter uzteko garaia da. Hori guztia dela eta, agiri hau bultzatzen dugu-nok eztabaida esparrua eskaini nahi dugu, gure Herriaren nazio eraikuntza eta gizarte eraldaketarekin konprometitu-tako ezker osoa biltzeko, erradikaltasun eta borrokaren il-dotik (...).

Euskal Herri burujaberanzko ezker eraldatzailea

Batzen gaituzten helburuen arabera eraiki nahi dugu ezkerra: Independentzia: Euskal Herria osatzen duten lurralde guztiekiko Estatu bat eraiki nahi dugu, herrialde guztien aniztasuna eta bakoitzaren nortasuna bermatuz. Herria-rengandik herriarentzat eraikitako Estatu burujabea dugu helburu.

Sozialismoa: Euskal demokrazia sozialistaren garapena, hau da, gure herriaren kultur eta giza errealitatean oinarri-tuz berezko eredua eratzea (...)

Euskal Herri euskalduna: Hiritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna; ez dago Euskal Herririk euskara-rik gabe, eta euskarak ezin du bizi Euskal Herririk gabe, be-re lurralde eta biztanlerik gabe.

Erronka berriei aurre egiteko erakunde berria

(...) Gure gizartearentzat aldarrikatzen dugun demokrazia parte-hartzailea eguneroko errealitate iraunkorra bilakatu behar da eraiki nahi dugun erakunde berriaren egituretan. Erakundearen horizontalitatean oinarritutako eredu parte-hartzailea, gardena, antitza eta demokratikoa izan behar da gurea. Lekuko Batzarra eztabaida eta erabakirako oinarriz-ko egitura izango da eta beste eztabaida, ekarpen eta eraba-ki marko kolektibo batzuk gauzatuko dira, lehen azalduta-ko helburuekin bat datozenen partaidetza aukerak handi-tzeko asmoz. (...) Aniztasunaren batasuna erakundearen oinarria izan behar da: lan ildo bakar bat ideien aniztasuna errespetatuz (...)

Herrigintzan; mobilizazioa eta borroka

Mobilizazioa eta borroka herrikoia funtsezkoak dira, soilik herriaren presiotik, herritarren mobilizaziotik, desobedien-tzia zibiletik baitira suntsiezinak herriaren garaipenak. Eraldakuntza gauzatu nahi dugu instituzioetatik ere; insti-tuzioak demokrazia parte-hartzailearen zerbitzura jarri nahi ditugu gero eta pertsona eta sektore gehiagok ekarpe-nak egin eta erabaki politikoen baldintzak eta nondik nora-koak zehaztu ditzaten. Ideien borroka ere gure erronka da. (...) Komunikazio bideak asmatu behar ditugu, eta era ber-dintsuan, porestakuntza politikoa ezinbestekoa izango da.

Bultzatzaileen zerrenda

- Ezkerreko hainbat sektoreetan jardun duen jendea dago Batasuna proiektuaren bultzatzaile gisa, Atzo aurkeztu zerrendan 200dik gora lagun daude.

Abril, Nati (EHUko irakaslea)	Eskubi, Javier (Medikua)	Federakundeko lehendakaria)
Acero, Iker (Kirolaria)	Etayo Tasio, Javier (Marrazkilaria)	Martin, Pedro (Sintragi)
Acero, Goio (Irakaslea)	Etxabe, Oroitz (Egizan)	Martinez Apestegia, Kiko (Preso ohia)
Aginako, Julen (HBko kidea)	Etxart, Allande (Euskaltzalea)	Mateos, Txoli (EHUko irakaslea)
Agirre, Inaxio (Euskaltzalea)	Etxebarria, Joana (IAko kidea)	Mendiluze, Kamino (EHko alkatea
Agirre, Loinaz (Kazetaria)	Etxebarria, Joserra (EHUko irakaslea)	Altsasun)
Agirre, Patxi (Sintragi)	Etxeberria, Rufi (HBko mahaikidea)	Mendizabal, Mikel (Bertsolaria)
Agirretxe, J.M. Porrotx (Pailazoa)	Etxebert, Grazi (Ezker Abertzaleko	Mendizabal, Antxon (EHUko Irakaslea)
Aiesta, Mikel (Euskaltzalea)	kidea)	Morcillo, Antton (HBko mahaikidea)
Aizpuru, Itziar (HBko mahaikide ohia)	Evaristo (La Polla-ko abeslaria)	Moreno, Iñaki (LABeko Mediku
Albite, Pedro (Unibertsitateko	Fano, Jon (Sindikalista)	Sindikalista)
Irakaslea)	Fernandez, Bixen (76ko M-3an	Morras, Xabier (Pintorea)
Aldekoa, Iñaki (HBko mahaikide ohia)	Langileen Ordezkaria)	Muñoz, Pablo (EHko Nafar
Aldekoa-Otalora, Antton Mari	Fernandez, Patxi Xabier (Kazetaria)	Parlamentarioa)
(Euskaltzalea. Gerediaga-ko	Forest, Eva (Idazlea)	Murgiondo, Maria Luisa (Aguraingo
lehendakaria)	François Lefort, Jean (Koordinaketa)	alkatea ohia)
Alegria, Xabier (Gipuzkoako EH-ko	Frias, Alberto (Ekologista	Nabera, Josu (Itzultzailea)
batzarkidea)	mugimendukoa)	Odriozola, Manuel (Nekazaria. EHNE)
Amuriza, Xabier (Bertsolaria)	Gallaga, Pako (EAE-ANV)	Olano, Juan Mari (AAB)
Andreu, Rosa (Egizan)	Gallastegi, Juan (Arrantzalea)	Olarra, Joxe Mari (HBko mahaikidea)
Andueza, Jon (Kazetaria)	Garai, Juan Ramon (Sindikalista)	Olazabal, Jesus Maria (Andoainen
Ansola, Peio Zaharra (Ezker	Garcia Soriguren, J. C. Patas (Hala	EHko zinegotzia)
Abertzaleko kidea)	Bedi irratikidea)	Ormaza, Sever (EAE-ANV)
Aoiz, Floren (HBko mahaikidea)	Gardezabal, Natalia (Feminista)	Ortega, Igor (Haika)
Apaolaza, Xabier (EHUko irakaslea)	Gaztañaga, Maixabel (Irakaslea)	Ortiz De Villalba, Iñaki (Betagarri)
Araiz, Adolfo (HBko mahaikide ohia)	Gil, Karlos (Antzerkigilea)	O'Shea, Iñaki (HBko kidea)
Aranbarri, Iñigo (Idazlea)	Gil De San Vicente, Kizkitza (Egizan)	Otegi, Arnaldo (HBko mahaikidea)
Arbizu, Martin (EHko Nafar	Gojeaskoetxea, Zigor (Euskaltzalea)	Ovejero, Gorka (NUPeko Euskal
parlamentarioa)	Gomez, Antton (EAE-ANV)	Adarreko ikaslea)
Aristizabal, Iñaki (Alkateen	Gomez, Mertxe (Bazterketa Sozialaren	Peña, Rakel (EHko Parlamentarioa)
Mugimendukoa)	Aurkako Mg. kidea)	Perales, Josu (Idazlea)
Aritz (Pilotaria)	Gorbea, Agustin (Langilea)	Perea, Oihane (Bertsolaria)
Armendariz, Ainara (EHko Iruñeko	Gordejuela, Kepa (HBko mahaikidea)	Permach, Joseba (HBko mahaikidea)
zinegotzia)	Gordobil, Iker (Gasteizko Gaztetxea)	Pinedo, Iñaki (EHko zinegotzia
Arozena, Xabier (Pintorea)	Gorostiaga, Pablo (EHko alkatea	Gasteizen)
Arraiza, Fermin (Abokatua eta Nafar	Laudion)	Plazaola, Garikoitz (Ekologista
parlamentario ohia)	Gorostidi, Jokin (HBko mahaikide ohia)	Mugimendukoa)
Arranbide, Robert (Hendaiaiko	Gorriti, Juanito (Eskultorea)	Prieto, Geronimo (Sindikalista)
zinegotzia)	Gozategi, Ainhua (Gozategi taldea)	Razkin, Jokin (Sokatirako munduko
Arrea, Juan Angel (LAB)	Gozategi, Axier (Gozategi taldea)	txapelduna)
Arrese, Miren (Egizan)	Hegui, Peio (Euskaltzalea)	Rekarte, Amaia (Haika)
Arrieta, Joxeaustin (Idazlea)	Ibañez, Joseba (UAGA)	Rios, Marian (Sikologoa)
Arroio, Igor (IA)	Ibarra, Iratxe (Bertsolaria)	Saez De Ugarte, Juanmi (Aktorea)
Astibia, Jaione (UEMA-ko	Idarreta, Julen (Unibertsitateko kirol	Sagarzazu, Begoña (AAB)
lehendakariordea)	irakaslea)	Salaberria, Jon (EHko Parlamentarioa)
Astigarraga, Ainhua (Egizan)	Idigoras, Jon (HBko mahaikide ohia)	Salutregi, Jabier (Egineko zuzendaria)
Barinagarrementeria, Luix (Abokatua)	Igarategi, Igor (Kirol irakaslea)	Sarriegi, Iker (Futbolari ohia)
Barrena, Fernando (HBko mahaikidea)	Imuntzo eta Beloki (Trikitilariak)	Sastre, Alfonso (Idazlea)
Basañez, Gabi (Euskaltzalea)	Iraeta, Josu (HBko mahaikide ohia)	Solabarria, Periko (HBko mahaikide
Beamount, Josu (AAB)	Iriarte, Espe (Irakaslea)	ohia)
Bereziartua, Kepa (EAE-ANV)	Iriarte, Joxe Bikila (Zutik)	Sturtze, Alizia (Editorea)
Besa, Esti (IA)	Irisarri, Xabier (Eskultorea)	Sukia, Iker (Kirolaria)
Billate, Ana Luci (Aktorea)	Izeta, Felix (Xake maisua)	Tapia, Alejandro (Pintorea)
Bisquert, Patxi (Aktorea)	Izquierdo, Rafa (Sindikalista. LAB)	Tapia, Joseba (Trikitilaria)
Borja, Anton (Unibertsitateko	Jimenez, Edorta (Idazlea)	Tielbe, Jose Antonio (Errota Zaharreko
irakaslea)	Jurado, Nekane (Ekonomilaria)	presidente ohia)
Brouard, Edurne (Euskara irakaslea)	Kaltzada, Julen (Itzultzailea)	Torre, Mikel (Euskaltzalea)
Burgoa, Jesus Mari (Arrantzalea)	Karrere, Gerardo (EHko zinegotzia	Unsain, Joxean (Pilotari ohia)
Calvo, Patxi (EAE-ANV)	Oreretan)	Urbieto, Ibon (Kirolaria)
Cantero, Alberto (Itaka Kolektiboa)	Karrere, Joxe Mari (Ipuin kontalaria)	Urdangarin, Mikel (Abeslaria)
Casajus, Jesus (Unai-ko parlamentario	Kongil, Txus (Askabide)	Uribe, Kirmen (Idazlea)
ohia)	Kruz, Karnele (Kultur koordinatzailea)	Urkaregi, Arantza (EHko zinegotzia)
Castaños, Jose Ramon (ILP	Landa, Karmelo (HBko mahaikidea)	Urrujulegi, Jon (Itzultzailea)
Ekimenekoa)	Landa, Josu (Idazlea)	Urrutia, Patxi (Zizurko zinegotzi ohia)
Cuadra, Sabino (Abokatua)	Larreategi, Izaskun (HBko mahaikide	Urrutikoetxea, Josu (EHko
Dañobeitia, Olatz (Haika)	ohia)	Parlamentarioa)
Diez, Rafa (LABeko idazkari nagusia)	Lasa, Iñaki (Euskara irakaslea)	Urrutikoetxea, Urtzi (Idazlea)
Donapetri, Ellande (Gizarte langilea)	Lasheras, Amparo (Idazlea)	Usategi, Iñaki (Abokatua)
Duhalde, Anje (Abeslaria)	Lizaso, Sebastian (Bertsolaria)	Valencia, Jesus (Hezitzailea)
Duhalde, Xabi (Gazteriak-eko	Llorente, Santi (Sindikalista. LAB)	Varona, Koldo (Gogoa)
bozeramaile ohia)	Loizaga, Iñaki (Gazte Mugimendukoa)	Zabala, Begoña (Feminista)
Egiguren, Olatz (Bizkaiko batzarkidea)	Lopategi, Jon (Bertsolaria)	Zabaleta, Miren (IA)
Eguren, Igor (Ardi Beltzako kazetaria)	Lopategi, Itziar (Sindikalista. LAB)	Zamora, Patxi (Salhaketa. Preso ohia)
Elkano, Anjel Mari (HBko mahaikidea)	Lopez, Enrike (Enologoa)	Zelairain, Julen (AAB)
Elkoro, Jose Luis (HBko mahaikide	Machikote, Ives (Haika)	Ziluaga, Txomin (HBko mahaikide ohia)
ohia)	Maia, Jon (Bertsolaria)	Zubiaga, Mario (EHUko irakaslea)
Elortza, Igor (Bertsolaria)	Manterola, Arantza (HBko kidea)	Zubizarreta, Xabier (EHko alkatea
Enbeitia, Abel (Irakaslea)	Markez, Mikel (Abeslaria)	Arrasaten)
Erasun, Juan Manuel (Kirolaria.	Markinez, Koldo (Nekazal teknikaria)	Zuluaga, Mikel (Editorea)
Zizurkilgo alkatea)	Marko, Iñaki (Euskaltzalea)	Zumeta, Jose Luis (Pintorea)
Erkizia, Tasio (HBko mahaikidea)	Marta, Patxi (Europa Kung-Fu	Zurutza, Kike (Euskaltzalea)